

*EUSKAL
PARTY-A:
BIDEO-JOKOEN
GARATZAILEEN
HARROBI BAT*

EUSKAL PARTY:
UNA CANTERA DE
DESARROLLADORES
DE VIDEOJUEGOS



EUSKAL PARTY-A: BIDEO-JOKOEN GARATZAILEEN HARROBI BAT

Espainiako bideo-jokoaren historia ez litzateke gaur egun dena izango Euskal Encounter topaketatik ateratako profesionalik gabe. 1994an sortutako topaketa horretan sektoreko etorkizuneko izarrak biltzen ziren, programazioaren edota diseinu grafiko digitalaren alorretan ikasitako guztia partekatu eta erakusteko. Topaketa hark garrantzi eta oihartzun handia bildu zituen, eta teknologia-enpresak hara joaten ziren talentu bila.

Baina ordura arte zer-nolako giroa zebilen Euskal Herrian, 1990eko hamarkadan?

8 eta 16 bit-eko jokoak egiten zituen euskal bideo-jokoaren garatzaileen lehen belaunaldiak (1985-1992) sektorea utzi, eta bere informatikarako zaletasuna beste esparru ekonomiko batzuetara bideratu zuen. Ez zuten jarraipenik izan.

Geroago, bigarren belaunaldia iritsi zenean (1993-1999) Commodore Amiga-rekin izan zuen lotura bereziki. Nahiz eta sistema berria izan, garatzaile talde haren lehen urratsak Joseba Epalza, Iñigo Ayo, Igor Ruiz, Ricardo Puerto eta Raúl Lópezek egindako antzekoak izan ziren. Beren kasa ikasi zuten, aldizkari espezializatuetan eta Ingalaterratik ekarritako liburuetan argitaratutako edukiei jarraiki.

Halere, Informatikako unibertsitate-ikasketen sorrerak, komunikazioen hobekuntzak eta Internet sortu berriaren lehen konexioek Amiga-zaleen komunitate bat sortu eta sendotzen lagundu zuten, zaletasuna, ezagutzak eta softwarea partekatzeko xedez. Denak elkartzeko aitzakia bat baino ez zen falta: orduan sortu ziren *party*ak.

PIRATEATZETIK SORTZERA

Europako, eta geroago Espainiako, topaketa informatikoen jatorriak *demoszena* (*demoscene*) izeneko kultur mugimendurekin du lotura. Commodore 64 eta ZX Spectrum ordenagailuen inguruan sortu zen, baina Commodore Amiga eta lehen PCak agertzean egin zuen gora bereziki. Sabino San Vicente (Urretxu, 1969) Euskal Encounter-aren zuzendariak azaltzen duenez, «informatika-programak pirateatzen

hasi zen mugimendua. Softwarearen babes desblokeatu eta gero, programatzaileek *intro*¹ izeneko aurkezpen txiki grafiko bat gehitzen zioten, eta, denborarekin, soinua, pantailan barreneko testu-mugimendua eta efektu bisualak gehitzen joan ziren».

Korronte hori pirateatze kontuak baztertzen joan zen pixkanaka, eta *sceners* izeneko talde informatiko batzuk sortu ziren orduan, ordenagailuaren mugak kontuan izanda, musikarekin, grafikoekin, 3D modelatzearekin eta programazioarekin zeuzkaten gaitasunak erakusteko helburuz. «Bideo-klip moduko batzuk egiten zituzten, ordenagailuz matematikoki sortuak», diosku San Vicentek.

Taldeko kideek «oso kreatiboak» izan behar zuten, Commodore Amiga muturreraino eraman eta zuku guztia ateratzeko. Programatzaileak guztiz adituak ziren «mihizadura-lengoan», demoa² azkarra izan zedin, eta leku gutxi har zezan.

Espanian, demoeszenaren fenomenoak ez zen hedatu lehenbiziko Commodore Amiga³-k merkatura iritsi arte. Lehen aldizkari espezializatuek, telefono-deiek eta elkarri bidaltzen zizkieten gutunek Jay Glenn Miner (1932-1994) estatubatuarrek diseinatutako ordenagailuaren erabiltzaileen arteko komunitate-sentipen sendoa sortzen lagundu zuten.

Sabino San Vicentek gogoratzen duenez, demoeszenaren zaleek gutun bidez trukatu zituzten beren sorkuntzak. «Gutunazal batean diskete bat sartzen zenuen zure lanarekin, eta jendeari bidaltzen zenion. Garai hartan Internet oso oso hastapenetan zegoen eta, lehen Bulletin

1. *Intro* izena ematen zaie, pantaila grafiko bakar batean oinarrituta, azkenik gabe garatzen diren demoei.
[On line] https://es.wikipedia.org/wiki/Demoscene_demos
[Kontsulta: 2015eko urriaren 2a]

2. Ikus-entzunezko aurkezpen ez interaktiboa, matematikoki programatua normalean, eta denbora errealean exekututzen dena.

3. Mora, Pedro Javier. «30 años de Amiga». *RetroManiac*, 10. zk. 142-173. or.

Board System-ak (BBS)⁴ ere existitzen baziren ere, askoz zailagoa eta garestiagoa zen haiek erabiltzea».

Paperezko aldizkariez gain, bazeuden aldizkari digital batzuk, Euskal Party-aren lehen edizioen berri zabaltzen asko lagundu zutenak, hala nola *Fanzine*⁵ eta *Doc's LLFB*. Commodore Amiga-n espezializatutako agerkari horiek disketean argitaratzen ziren bakarrik, eta albisteak, iragarkiak, elkarrizketak eta artikulu teknikoak eskaintzen zituzten, ordenagailuari txinpartak ateratzerainoko programazio-truku ugariarekin batera. Zaleak harremanetan jartzeko gune bat ere bazeukaten, argitalpen-horma baten modukoa.

Espainiako Amiga-zaleek Europako topaketa informatikoen berri izan zuten horrela. *Demoparty* izeneko topaketa haietan, zaleak zenbait egunez elkartzen ziren, Amiga batekin egindako lanik onenak erakusteko.

Europako lehen *party*ak 1980ko hamarkadaren bigarren erdian antolatu ziren, 8 bit-eko mikroordenagailuekin, ZX Spectrum eta Commodore 64rekin. Lehenbiziko Amiga-k merkaturatzearekin batera, kontinente osora hedatu ziren topaketa haiek, Iparreko herrialdeetara bereziki.

1992ra arte itxoin beharko zen informatika-zaleek Espainiako lehen *party*a antolatzeko. *Crackerren*⁶ topaketa bat izan zen eta Valentzian antolatu zen irailaren 26-28 bitartean, Fifth Generation & Darkness CopyParty 92

4. Ordenagailu-sareetarako softwarea, erabiltzaileei aukera ematen diena konektatzeko, softwarea eta datuak jaisteko, albisteak irakurtzeko eta beste erabiltzaile batzuekin mezuak trukatzeko. 1980ko eta 1990ko hamarkadetan komunikazioen zale eta software-garatzaille askoren topaleku bihurtu ziren BBSak. Fitxategiak trukatzeko lehen sistema publikoak izan ziren. [On line] https://es.wikipedia.org/wiki/Bulletin_Board_System [Kontsulta: 2015eko urriaren 4a]

5. «Entrevista a Fanzine». *Amiga.InFo*, 1. zk. 1995eko urtarrila/otsaila. [On line] <http://encanta.avalonsoftware.org/ainfo/01/fanzine.php> [Kontsulta: 2015eko urriaren 4a]

6. Definizioaren inguruan eztabaidarik badago ere, software informatiko bat eten eta babesik gabe uzten duten programatzaileak izendatzeko erabiltzen da terminoa.

izenarekin⁷. Lehenbiziko *demopartya*, berriz, hurrengo urtean egin zen, Cádizeko San Fernando hirian. «Southern Party 93-a⁸ topaketa txikitxo izan zen. 50 ordenagailu baino ez zituen izan, gehienak ere Commodore Amiga», aipatzen du Sabino San Vicentek.

Eduard Matas «Matt»⁹ *swapperra*¹⁰ Bartzelonatik The Party-ra joateko – urte hartan bertan Herning-en¹¹ (Danimarka) egitekoa zen «only Amiga» topaketara – autobus bat antolatzen ari zela jakin zuen gure urretxuarrak hilabete batzuk lehenago, *Fanzine* aldizkariaren bidez. Espainia osoko 30 bat lagunek eman zuten izena bidaia horretan joateko. Tartean, Sabino San Vicente bera, lagun batzuekin. «Urretxutik Bartzelonaraino joan ginen trenez, eta han gainerako Amiga-zaleekin bat egin genuen». 30 ordutik gorako autobus-bidaia baten ondoren *partyra* iritsi, eta beren ordenagailuak muntatu zituzten han, beren tubo-monitoreekin batera. «Hain gustura ibili ginen han, etxerakoan guk ere geure *party*a antolatzeko aukeran pentsatzen hasi bainekin».

EUSKAL PARTY BAT?

1994ko urtea zen eta Sabinok buruan zerabilkien oraindik Urretxun *party* bat antolatzeko asmoa, harik eta euskal Amiga-zale batzuekin elkartu eta lanari ekin zioten artean. Haien artean zeuden Ignacio Aranburu, Mikel Aramendi, Iker San Vicente eta Oier Agirre «Osabakoldo» tolosarra. EuskalAmiga informatikaren lagunak elkarteak eratu zuten orduan.

7. Fifth Generation & Darkness CopyParty 92-aren laburpena. *Fanzine*, 2. zk. [Online] http://encanta.avalonsoftware.org/fanzine/02/fgdks_party.php [Kontsulta: 2015eko urriaren 5a]

8. 1993ko abuztuaren 24 eta 25ean egin zen.

9. «Eduard Matas, el viajero de las parties». [Online] <http://www.ionlitio.com/eduard-matas-el-viajero-de-las-parties/> [Kontsulta: 2015eko urriaren 5a]

10. Eszena-munduan, programatzaile talde baten harreman publikoak arduratzen dena.

11. «Amiga-ren erdigunetzat jotzen den The Party-ren lehen edizioa Aars-eko (Danimarka) erakusketa-zentroan egin zen, 1991eko abenduaren 26an. Hirugarren edizioan Messecenter Herning-era aldatu ziren: 1993ko abenduaren 27-29 bitartean egin zuten, 2.487 parte-hartzaileekin. [Online] <http://www.theparty.dk/wiki/Events> [Kontsulta: 2015eko urriaren 5a]

«Lau lagun elkartu ginen nire etxean, eta Gipuzkoako jende ezagunarekin garaje batean egitekoa zen topaketa txikia taxutzen hasi ginen», azaldu zuen San Vicentek *Fanzine* aldizkarian argitaratutako artikulu batean. «Elkartzeko eta ideiak partekatzeko beharra»-ri erantzuten zion topaketa hark, «bai eta gauzak gure europar bizilagunek baino hobeto egiteko gai ginela erakusteko nahia»-ri ere.

Proiektua martxan zela, hurrengo hamabost egunean topaketa informatiko haren edukia jasotzen zituen dokumentua prestatu zuten lehen euskal *party*aren bultzatzaileek, eta, ganorazko *scenerrak* zirenez gero, *intro* bat prestatu zuten topaketaren daten berri emanez. «Gure ezagun guztien artean banatu genuen, haiek ere beren ezagunen artean banatzeko, eta jendea berehala hasi zitzaigun babesema ematen. Prestatzen hastea baino ez zen gelditzen».

Garai artean, San Vicente aisialdiko begiralea zen Urretxun, eta Udalera jo zuen babes eske eta lehen Euskal Amiga Party-a izango zena egiteko leku baten bila. Gogoan du «hogei aldiz» azaldu behar izan zuela *party* bat zer zen, «baina azkenean ez ziguten eragozpen handirik jarri».

Udalak Ederrena frontoia utzi zien, eta antolatzaileak arduratu ziren gainerako materialez: aulkiez, mahaiez eta, garrantzitsuena, instalazio elektrikoaz. Horrez gain, pantaila erraldoi bat eta musika-ekipo bat kontratatu zituzten, demoeszenako taldeek egindako lanak proiektatzeko.

«Pantaila Banco Bilbao Vizcaya-ri (BBV) eskatu genion hasiera batean, baina kale. Orduan bost metroko pantaila bat alokatzea erabaki genuen, baina, frontoian argia sartzen zenez, ez zen tutik ere ikusten. Azkenean, 46 hazbeteko Philips telebista bat lortu genuen, Udalak utzitakoa». Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kutxak eta Urretxuko dendeek ere lagundu ziguten.

Azpiegitura gehiena prest geneukala, «ez genekien jende askorik etorriko ote zen topaketara», gogoratzen du San Vicentek. Zalantza haiek gorabehera, trasteak hartu eta San Fernandoko (Cádiz) Southern Party 94-ra joatea erabaki zuen urretxuarrak. Espainiar eszenako zenbait ezagunekin egin zuen topo han, eta esan zien euskal *party* bat antolatzen ari zirela, abuzturako.

1994ko abuztuaren 6ko goizeko hamarretan, Urretxuko Ederrena frontoia ateak zabaldu zituen, Euskal Amiga Party-aren lehen edizioa izango zenerako. «Jendea bazetorrela ikusita, lasaituz joan ginen», aitortzen du San Vicentek. Denera, 35 parte-hartzaile eta 26 Amiga ordenagailu izan zituzten. «Leku askotatik etorri zen jendea: Algeciras, Bartzelona, Basauri, Bilbo, Burgos, Burlata, Madril, Málaga, Morata de Tajuña, San Fernando eta Valentziatik, besteak beste». Jende asko Gipuzkoatik kanpotik etorri izanak asko lagundu zuen topaketaren berri zabaltzen hurrengo edizioetarako.

Urretxuko herria ere gonbidatu zituzten *party* hartara, ordenagailuak probatzeko. Bai eta, *scenerrak* ez izan arren, bideo- eta soinu-estudioetan Amiga-rekin lan egiten zuten profesionalak¹² ere.

Eguna amaitzeko, demoen lehiaketa egin zuten. Euskal Amiga Party-aren arduradun nagusiak dioenez, «ikaragarria» izan zen parte-hartzaileko ekoizpen-ratioa, «hara joandako gehienek aurkeztu baitzuten lanen bat». Dena den, ekoizpen gehienak aldeztu aurretik ia guztiz muntatuta iritsi ziren *partyra*.

«Ez dago astirik demoak egiteko. Normalean asteak edota hilabeteak behar izaten dira halako demoak osatzeko. Gainera, taldekideek Estatuko herri desberdinetakoak badira, denen lanak batera jarri eta *coder* (programatzaile) bati bidali behar zaio. *Partyaren* egunak azken ukituak emateko edota kodean hobekuntza txikiak egiteko erabiltzen dira».

Hamabi ordu eta gero, amaiera eman zioten Euskal Herriko informatika-festaren lehen edizioari. Gehienak, lehertuta, beren ekipoak bildu eta etxera itzuli ziren. Beste batzuek Getariako festetara parrandan joatea erabaki zuten, Urretxutik 45 kilometrora, eta han ibili ziren goizeko ordu txikiak arte.

12. Mikel Aramendik *Fanzine* aldizkariaren 9. zenbakian argitaratutako artikuluan batean esandakoaren arabera, 74 lagunek parte hartu zuten *party*an. Eta hauxe izan zen informatika-ekipoen zerrenda: 16 Amiga 500, 14 Amiga 1200, 1 Amiga 2000, 1 CDTV, 2 CD32, 2 Amiga 3000, 3 Amiga 4000, 10 kanpoko diskete-unitate eta 2 bideo-erreproduzigailu. Aramendi, Mikel. «Euskal Amiga Party. Documento confidencial I». *Fanzine*, 9 zk. [Formatu digitala]

Harro eta pozik

Lehen Euskal Amiga Party-ari amaiera eman eta gero, antolatzaileak pozez zorutzen zeuden izandako arrakasta ikusita, eta hurrengo edizioa prestatzeari ekin zioten berehala. Izan ere, handik lau hilabetera egin zuten, 1994ko abenduan. «Lehenbiziko edizioak eragindako poz handia eta gero, beste edizio bat antolatu nahi genuen, denboran jarraipenik izango ote zuen jakiteko. Bagenekien beste *party* batzuk, hasiera batean entzute handi samarra izan arren, gainbehera joan zirela geroxeago».

Sabino San Vicenteren taldeak finkatutako helburua demoeszenako kideen parte-hartzea bikoiztea eta «ehundik gora lagun biltzea» izan zen. Hasiera batean topaketa Urretxun errepikatzea pentsatu zuten, baina Legazpin egin zuten azkenean. Aurreikusitako ehun zaleak hartzeko leku handiagoa behar zutelako etorri zen aldaketa. «Udalera jo genuen eta, Urretxun bezala, ez ziguten eragozpenik jarri. Bikuña kiroldegia eskaini ziguten, eta guri ederki iruditu zitzaigun, askoz hangoa baitzen Urretxuko frontoia baino», azaltzen du San Vicentek.

Ehundik gora lagun erakartzea erronka zaila zen, baina ez ezinezkoa. Bazekiten hura lortzeko ahalegin berezia egin beharko zutela topaketa informatikoaren berri zabaltzeko, eta akordio bat lortu zuten *Fanzine* aldizkari digitalarekin. Aldizkariaren hamargarren zenbakian, 1994ko abenduko lehen egunetan argitaratua, euskal topaketa informatikoari buruzko erreportaje berezia argitaratu zuten, *partyan* antolatuko ziren demoeszenako lehiaketa eta jardunaldi guztien berri emanez. «Amigazaleen artean bolo-bolo zabaldu zen albistea eta BBSeK sareen bidez iragarri zuten», jakinarazi zuen *Amiga.info* aldizkariak bere lehen zenbakian¹³.

Edizio hark izan zuen berrikuntza gehiagorik ere: topaketa luzeagoa izango zen. Egun batetik, informatika-jardueraz betetako etenik gabeko hiru egunera luzatu zen. Horrekin batera, lotarako lekua egokitu zuten kiroldegian, parrandan jarraitzerik ez zutenentzat. Han bildutakoek *sobódromo* («zirri-dromoa») izena jarri zioten txoko hari txantxetan. Bi berritasun horiek edizioz edizio iraun dute.

13. «Euskal Amiga Party II». *Amiga.InFo*, 1. zk. 1995eko urtarrila/otsaila. [On line] <http://encanta.avalonsoftware.org/ainfo/01/euskal2.php> [Kontsulta: 2015eko urriaren 7a]

1994ko abenduaren 27ko goiz hotz hartan, Euskal Amiga Party 2-ko lehen parte-hartzaileak iristen hasi ziren Bikuña kiroldegira. Ekipo informatikoez, lo-zakuez, era guztietako tresna eta gailuez eta hiru egunetan areto hartatik atera behar izan gabe bizi ahal izateko jatekoez lepo iritsi ziren. Lau hilabete lehenago jasotako aholku, ekarpen eta kritikek topaketa «askoz serioagoa eta askoz zabalagoa» egiten lagundu zieten antolatzaileei.

Ordenagailuen guneaz gain, edukien berri emateko hitzaldiak antolatzea erabaki zuen antolakuntzak. Gai askori buruz jardun zuten: Amiga ordenagailuetako pirateatze informatikoaz eta horri lotutako arazoez eta Internet eta Fidonet¹⁴ sareetako azken teknologiez, esate baterako.

Baina dena ez zen primeran atera bigarren edizio hartan. Nekearen eta gipuzkoar neguari lotutako tenperatura baxuen ondorioak sumatu zituzten parte-hartzaileek. «Kiroldegiko berogailua hondatuta zegoen, eta jendeak zamarrak eta are eskularruak ere jantzita programatzen zuen», oroitzen dute saminduta, galdetu diegun parte-hartzaileetako batzuek. Hainbestearinoko hotza egiten zuen Legazpin, jende askok ezin izan baitzuen gau osoan begirik bildu. Beste batzuek ordenagailua hartu, eta etxera lehenago itzultzea erabaki zuten. Ostegun goiza iristean, ausart gutxi batzuk baino ez ziren gelditzen Bikuña kiroldegian.

Eragozpen haiek gorabehera, San Vicentek «harro eta pozik» gogoratzen du Euskal Amiga Party-aren bigarren edizio hura. «Nahiz eta aurreikusitako ehun ordenagailuetara ez iritsi, gertu ibili ginen, 80 bat izan ziren guztira. Parte-hartzaileak, ordea, gehiago izan ziren, 200 lagun; eta horrez gain inguruko jende asko ere etorri zen kiroldegira». Euskal Herritik kanpotik zetozen zaleek ordenagailuak partekatu egiten zituzten, eta horregatik ordenagailu eta parte-hartzaile kopuruen arteko aldea¹⁵. «Valentziatik etorritako lauk Amiga ordenagailu bat edo

14. Fidonet mundu-mailako ordenagailu-sare bat da eta Bulletin Board System-en (BBS) artean komunikatzeko erabiltzen da. [On line] <https://es.wikipedia.org/wiki/FidoNet> [Kontsulta: 2015eko urriaren 7a]

15. Ekipo hauek erabili ziren: 11 Amiga 500, 25 Amiga 1200, 6 Amiga 4000, 2 Amiga 3000, 1 Amiga 2000 eta 1 Amiga CD32, «Euskal Amiga Party II» kronikaren arabera. *Amiga.info* aldizkaria. 1995eko urtarrila/otsaila.

bi bakarrik ekarri zituzten, beren monitoreekin, autoan ez baitzuten gehiagorako lekurik», azaltzen digu urretxuarrak.

Euskal *party* hark «oihartzun handi samarra izan zuen hedabideetan». ETBk zenbait erreportaje egin zituen, eta TVEko bigarren kateko profesionalak *Bit a bit*¹⁶ bideo-jokoen programarako irudi eta datuak hartzen egon ziren.

Goi-mailako traizioa

Akatsetatik ikasi, eta haiek zuzendu beharra zegoen. Lehenik eta behin, ekitaldiaren azterketa kritikoa egin zuten eta hurrengo euskal *party*ek izan beharreko oinarrizko ezaugarri eta egiturez eztabaidatu zuten. Erabaki horiek hurrengo urteetako Euskal Encounter-aren zerizana baldintzatuko zuten.

Urtean edizio bakarra egitea izan zen orduan hartutako erabaki garrantzitsuenetakoa, eta topaketa neguan ez egitea. Zalapartarik gehien piztu zuena, berriz, euskal *party*a PC-erabiltzaileei ere zabaltzea izan zen, inondik ere. «Egundoko kritika piloa jaso genuen. Amiga-erabiltzaileen komunitatea guztiz txiki eta endogamikoa zen, eta Euskal Party-ra PCak ekartzea goi-mailako traizioa zen». Gainera, izena Party-tik Euskal Amiga/PC Party-ra aldatzeak areago nahastu zituen bazterrak.

San Vicentek adierazten duenez, berak eta bere taldeak parte-hartzaile gehiago erakarri nahi zituzten *party*ra. Bazekiten PCak Commodore Amiga baino makina kaskarragoak zirela orduan, baina IMB PC bateragarriak agertzearekin batera gauzak aldatzen ari zirela sumatzen zen. Denborak ematen duen distantziarekin, PCak ere gonbidatzea erabaki zuzena izan zela ikusten da, Amiga ordenagailuen kopurua gutxituz joan baitzen pixkana-pixkana, ia guztiz desagertzeraino. Aurreko edizioetan bezala, beste leku batera eraman zuten euskal *party*a. «Hirugarren edizioa Tolosan egitea erabaki genuen —Urretxutik 33 kilometrorra eta Donostiatik 29ra—, handiagoa baitzen herria. Hango kiroldegia ere handiagoa zen Legazpikoa baino eta, beraz, ordenagailu gehiagorako lekua zeukan. Berrito ere, Sabino San Vicente arduratu

16. *Bit a bit* [Online] <http://www.ionlitio.com/bit-a-bit/>
[Kontsulta: 2015eko urriaren 9a]

zen kultur etxeko arduradunekin beharrezko gestioak egiteaz, eta Berazubiko kiroldegia utzi zieten hiru egunerako. «1995eko urriaren 13tik 15era egin genuen Euskal Party-a, ostegunetik igandera, zubia aprobeztatzeko», gogoratzen du.

Hiru egunotan zehar, 300dik gora lagun bildu ziren Tolosan, eta 200 ordenagailu instalatu zituzten kiroldegian, Commodore Amiga-k PCei gailendu zitzaizkielarik. Plataforma baten eta bestearen aldekoen arteko eztabaida eta ika-mikak alde batera gelditu ziren topaketak iraun zuen bitartean, nahiz eta askok gogoan dituzten oraindik elkarren arteko «adar-jotze umoretsuak».

Hurrengo urtean, euskal *party*ak izena eta lekua aldatu zituen, berriro ere. «Amiga/PC hitzak kendu genituen, irentsiezina inondik ere, eta bi komunitateen arteko lehia gutxitzea lortu genuen, bide batez. Euskal Party izena utzi genuen». Topaleku berriari dagokionez, antolakuntzak jauzi kualitatiboa eman zuen. «Donostiara joan ginen, Anoetako Carmelo Balda frontoira; askoz leku handiagoa, eta askoz aukera gehiago eskaintzen zituen».

Laugarren edizio hartako beste aldaketa bat, hurrengo edizioetan iraun duena, euskal informatika-topaketaren behin betiko data izan zen. «Ikusi genuen uztaileko azken astea zela datarik egokiena. Ikasleek bukatuak dituzte eskolak ordurako eta lanean ari direnek erraza daukate opporrak hartzeko».

Euskal Party 4-k berealdiko arrakasta izan zuen. Parte-hartzaileen iragarpenik baikorrenak oso urruti gelditu ziren azken emaitzatik. «280 ordenagailurako eta ia 500 parte-hartzailearentzako lekua bageneukan ere, beren ekipoekin etorritako askok ezin izan zituzten muntatu, leku faltagatik». Euskal Party-aren antolakuntza-taldearen ustez, hirugarren edizioak izandako oihartzun mediatikoaren ondorioz joan zen hainbeste jende laugarren ediziora, bai eta hainbat PCren artean lehen Internet-sarea instalatu izanaren ondorioz. Gasteizko Jet Internet enpresa arduratu zen sarea muntatzeaz. «64 KB-ko konexio-abiadura zeukan, eta denen artean partekatzen zen. Kable ardazkidea erabiltzen zuen eta ordenagailuz ordenagailu muntatu behar zen».

Hurrengo urtean, Euskalnet izeneko enpresa sortu berriak –Euskaltel telefonia-operadorea bihurtuko zena geroago– hartu zuen Jet Internet-en¹⁷ lekukoa, eta Interneterako konexio xume-xumea eskaini zuen Euskal Party 5-en. Ez zen oso azkarra, baina aldaketa sekulakoa izan zen parte-hartzaileentzat. Aurreko edizioko 64 kbps-etatik 1 Mbps-ra pasa ziren.

Bestalde, eszena-ekoizpenik gehien aurkeztu zen *party*a izan zen bosgarren edizio hura. Hemeretzi guztira, PC-komunitatearen bultzadari esker. Ez zen inoiz halakorik gertatuko. Ordenagailuentzako esparrua ere handitu egin zen.

«Ez genuen inor kanpoan gelditzerik nahi, aurreko laugarren edizioan gertatu zen bezala, eta Donostiako Udalarari Carmelo Balda kiroldegia eskatu genion, frontoiaren ondoan. Pentsatu genuen aurreko edizioan kanpoan gelditu ziren haiek guztiek beren lekua izango zutela, baina azkenean ez zen bete. Espero baino jende gutxiago etorri zen *party*ra, beharbada haserre zeudelako oraindik, aurreko urtean kanpoan gelditu behar izanaren ondorioz», uste dute Euskal Party-aren antolatzaileek.

SCENER-AK

Scenerrak beti izan dira *party*etako jaun eta jabeak. Aditu gazte haiek programazioa, 3Dko modelatzea eta musika digitala nahasten zituzten ekoizpenak sortzera bideratzen zituzten beren ezagutza guztiak. Euskal Party-aren inguruan sortutako giroak eta demo-lehiaketak Espainiako bideo-joko enpresen arreta piztu zuten, industria hondotik atera nahian baitzebiltzan artean. 1998-2001 urte bitarteko edizioetan nabarmendu zen arreta hori bereziki, eta talentu berriak kontratatu nahi zituzten enpresa guztiek euskal topaketa hartara jotzen zuten, ezinbestean. Nor dira *scenerrak*, baina?

Aplikazio bisualak –demoak, introak, 2D eta 3D grafikoak– garatzeko ezagutza informatiko berezirik gabeko gazte haien jatorria Espainiako lehen bideo-jokoak garatu zituzten gazteen antzekoa zen. Aldizkari espezializatuen bidez ikasi zuten zekiten guztia, ordenagailuei ahalik eta etekinik handiena ateratzeko era guztietako programazio-trukuak

17. Fernando García sortutako Internet-hornitzaileak porrot egin zuen *euskal party*a hasi baino lehentxeago.

argitaratzen baitzituzten aldizkariok. Internet oso hedatuta ez zegoen garai hartan, «ia ezinezkoa zen dokumentazioa eskuratzea –azaltzen digu San Vicentek–. Libururen bat lortzen zuenak, edo ingelesezko programazio-liburu baten fotokopien fotokopiak, urrea bezala gordetzen zuen».

Halere, alde handia dago informatikarien bigarren belaunaldi haren eta Espainiako softwarearen Urrezko Aro betean trebatutako autodidakten artean: unibertsitateko Informatika ikasketak zeuden ordurako, bai eta zaleen komunitate biziak sortzeko aukera ematen zuten komunikazio-azpiegiturak ere.

Gainera, lehen BBSen bidez munduko ezagutza iristen hasia zitzaien, eta erabiltzaileek eztabaidatu, zalantzak argitu eta artxiboak –grafikoak, introak eta demoak bereziki– trukatzeko aukera zeukaten bertan. Internet bazter guztietara hedatzearekin batera, IRC¹⁸ txat-kanalek eta gaiari buruzko foro espezializatuek hartu zuten BBSen lekua.

Scenerrek ezizenez eta beren taldearen izenez ezagutzen zuten elkar. Taldeen osaera ideala hau zen: *swapper* bat (harreman publikoetako arduraduna), *coder* bat (programatzailea), grafista edo 3D modelatzaile bat eta musikari bat. Dena den, pare bat programatzailek eta grafista batek osatutako taldeak ziren ohikoenak, eta musika egiteko kanpoko norbaitengana jotzen zuten gehienetan. Oso talde biziak ziren: kide batzuk hainbat taldetan aritzen ziren aldi berean eta talde batetik besterako jauziak ere ugariak izaten ziren.

Urte haietako topaketa informatikoez, Euskal Party tartean, Espainiako eta Europako eszenako kideen artean zegoen urruneko harremana esparru komun baterantz birbideratzen lagundu zuten, informatika-prozesu desberdinei buruzko zalantzak argitu eta gauzak partekatu ahal izateaz gain, ordenagailuarekin egiten zekitena erakusteko eta lehia jarduteko aukera ere ematen zuen esparru baterantz, hain zuzen ere.

18. Internet Relay Chat (IRC) testuan oinarritutako denbora errealeko komunikazio-protokolo bat da. [On Line] <https://eu.wikipedia.org/wiki/IRC> [Kontsulta: 2015eko urriaren 13a]

Sabino San Vicentek azpimarratzen duenez, *party* haietan «gauza pila ikasten zen, programazio-alderdi bati buruzko ezagutza oso zehatza zeukan jendea izaten baikenuen aurrean. Ordenagailuari etekin handiagoa ateratzeko lehiatzen ginen, edo efektu jakin bat lortu, errutinak optimizatu edo Amiga-ren barrenak ezagutzeko», eransten du.

Euskal *party*aren barruan, demoeszenak aurreneko hamaika edizioetan jo zuen gailurra, hainbat disziplinan¹⁹ lehiatzen ziren hogeitau talde elkartzera iritsi baitziren. Urterik urte aurkeztutako lanen kalitateak interes handia piztu zuen bideo-jokoen sektorean. Etorkizuneko profesionalen harrobi bat zen *party*a espainiar enpresentzat, eta *party*ko parte-hartzaileentzat, berriz, beren informatikarako grina profesionalki garatzeko aukera bat.

Demoetatik jokoetara

Espainiako zenbait enpresa ofizialki joan ziren Euskal Party-ra talentu bila, eta eszenako kideak kontratatu zituzten beren proiektuetarako. Euskal Herriko dozenaka *scener* aeronautika-enpresetan, ikerketa teknologikoko zentroetan eta animazioko produkzio-etxeetan hasi ziren lanean, edota filmetarako efektu bereziak egiten.

Atal honetan, baina, Goblins eta Iguana taldeetako kideek bideo-jokoen mundura emandako jauzia nabarmendu nahi dugu. Haien proiektuek Espainiako entretenimendu digitaleko egungo industriaren oinarriak finkatu zituzten, eta beren esperientzia eta gaitasunari esker lehen lerroan kokatu ziren.

Goblins taldea Bilbon sortu zen. Euskal Herriko Unibertsitateko Informatika fakultateko (Donostia) hiru ikaskidek osatu zuten, hasiera batean: Ismael Raya «Phornee», Alberto Graña «Birra» eta Álex Camaño «Tom». Rayak gogoratzen duenez, hirurek ere «zaletasun handia zeukaten ordenagailuekin», baina «ikuspuntu friki batetik». «Rol-jokoak atsegin zituen eta *Eraztunen jauna* irakurtzen duen informatika-frikien profila betetzen genuen», eransten du Camaño.

19. Demoak, introak, 4Kb-ko introak, modak, multikanalak, 2D grafikoak eta 3D grafikoak.

Garai hartan, Commodore Amiga 500 ezagun samarra zen eta, Jay Glenn Miner-en makina haren gaitasun teknikoekin txundituta, haietako bat eskuratu zuten hiru ikasleek. Bilboko software-truke eta piratatez-zirkuluen bidez²⁰ jakin zuten bazegoela *demoeszena* izeneko mugimendu bat, «garai hartan Amiga ordenagailuekin bakarrik aritzen zena», azaltzen du Rayak. «Bazen tipo bat jokoak eta demoak disketetan saltzen zituen. Demoen kredituetan, egileen izenak agertzen ziren, eta beste *scener* batzuei zuzendutako agurrak. Kontu hori asko gustatu zitzaigun, eta guk ere geureak egin genitzakeela erabaki genuen».

Camañok honela deskribatzen du demo bat zer den: «ordenagailuarekin noraino iristea dagoen jakiteko, hura behartzen dueneko erakustaldi tekniko baten modukoa. Inork lehenago egin ez zuen zerbait egitea zen helburua eta, batez ere, azkarrago egitea, eta askoz modu teknikoagoan. "Behe-mailako" programazioa erabiltzen zen horretarako. Are matematikoa ere». Bestalde, demoek «erakargarriak ere izan beharra zeukaten. Ikus-entzunezko esperientziak, kolore, musika eta bestelako efektuekin, eta denbora errealean exekutatuak», eransten du programatzaileak.

1994a zen eta, Bilboko Amiga-zaleen topaketa haiei esker, Goblins taldearen hazia hedatuz joan zen, Álvaro de la Fuente «Júpiter», Ismael Herrero «Txunky punky» eta Unai Raya «Lentium» iristean.

Goblins izenaren jatorriari dagokionez, Alberto Grañak eta biek Bilbotik Donostiarako autobusa hartzean nahastu zireneko pasadizoa azaltzen digu Ismael Rayak. «Gasteizko campusera zihoana hartu genuen. Hara iritsita, egitekorik ez geneukanez, talderako izenak pentsatzen hasi ginen, eta zenbait izen idatzi genituen paper batean. Azkenean Goblins aukeratu genuen, ondo ematen zigulako belarrira».

Amiga-zaleen komunitatearen bidez, Legazpin Euskal Amiga Party-aren bigarren edizioa egitekoa zela jakin zuten Goblinstarrek. «Bi

20. «Arriaga antzokiko plazan gelditzen ginen larunbatero, BAT/CUAko (Bizkaiko Amigaren Taldea/Club de Usuarios de Amiga) gainerako Amiga-zaleekin. Bilbon sortutako talde horretan programak trukatu, albisteei buruz jardun eta errutina berriei eta haiek gauzatzeko moduari buruz eztabaidatzen genuen», argitzen digu Ismael Herrero Goblinseko programatzaileak

hilabete lehenago izan genuen haren berri, eta demo bat egitea erabaki genuen», diosku Ismael Herrero²¹. «Ez geneukan denbora askorik, eta, beraz, geneuzkan errutina guztiak elkartzea erabaki genuen, gehienak ere oso zaharrak, eta programatzen hasiak ginen beste berriago batzuk gehitu genituen, gutziz ikusgarriak».

Partyaren eguna iritsi zenean, baina, lana erdizka zeukaten oraindik. Goizean goiz ordenagailuak²² autoan sartu, eta Bikuña kiroldegirantz jo zuten, lana han amaitzeko asmoz. Bi egunez ia atsedetik hartu gabe jardun eta gero, eta behatzak «hozminduta²³», azkenean Goblins taldeak ez zuen batere demorik aurkeztu²⁴.

Baina dena ez zen lana izan. *Partyari* esker, Espainiako eszenaren zati bati aurpegia jarri ahal izan zioten Goblinstarrek. «Pertsona bakarraz osatutako taldeak zeuden han, edota *party*an elkartu berritako bik osatutakoak. Kanpoko jendea ere bazen han, frantses batzuk, adibidez, gertu zeukatelako, eta beste atzerritarren bat», aipatzen du Camañok. «*Partyra* iritsi bezain laster eta handik alde egin arte, jendearekin hizketan ematen zenituen orduak».

Lehiaketari dagokionez, aitortzen du «nolabaiteko lehia» zegoela taldeen artean, baina adiskidetasun giroan betiere. Rayak azpimarratzen duenez, «horixe da demoeszena-mundua mugitzen duen motorra, lanen arteko lehia». Hori zela eta, informazioa, ezagutza eta programazio-trukuak «den-dena mahai gainean jarri gabe» egiten zen.

21. Ismael Herrero *coderrak* testu bat idatzi zuen 1995eko abenduaren 18an Goblinsen «El Ocaso del Payaso» demoaren eranskin gisa, eta Miguel Albors programatzaileak bere blogean zabaldu zuen urte batzuk geroago. <http://pensarescompartir.com/wordpress/asi-se-hizo-el-ocaso-del-payaso/> [On line] [Kontsulta: 2015eko urriaren 5a]

22. «Nire Amiga 500-a eraman zuen, bere hodi-monitorearekin. Izango zituen 15 kilo», gogoratzen du Rayak.

23. Ismael Rayak gehitzen du «baldar hutsa» izan zela. «Negua zen, eta sekulako hotza egiten zuen. Hiru egunez gelditu nintzen han, lotarako zakurik gabe. Koltxoneta puska baten gainean egiten nuen lo, uzkur-uzkur eginda, zamarra erantzi gabe, eta gauero pare bat ordu lo egiten saiatzen nitzen. Esperientzia latza izan zen, baina gogoko bidean aldaparik ez». (Ismael Raya)

24. Goblins taldeko zenbait kidek demoa osatzen zuten errutina eta grafikoak lehiaketara aurkeztu zituzten beren kasa.

«Demoaren zati bat nola egin zenuen azalduko zenuen, baina xehetasun guztiak eman gabe. Besteek ere berdin jokatzeko zuten. Halako sekretismo-kutsu bat zegoen, inork jakin ez zezan *party*an zer aurkeztuko zenuen, demoaren azken puskak edo grafiko bat programatzen ari zirela, norbait zure ondotik pasaz gero, pantaila estali edo itzaltzeraino».

Commodore Amiga-ren euskal eszenan Goblintarrak erreferentziatzeko taldea izan ziren bezala, PCen espainiar homonimoa Iguana taldea izan zen. Javier Arévalo «Jare» eta Juan Carlos Arévalo «JCAB» anaiek sortu zuten taldea 1992an, eta haien lanek oihartzun handia izaten zuten, 1994ko The Assembly-an PC Demo kategorian hirugarren saria lortuz geroztik bereziki.

Biek ala biek esperientzia zeukaten programazio alorrean. 1987an *Star Dust*²⁵ bideo-jokoa argitaratu zuten TopoSoft ziguilarekin eta, hiru urte geroago, *Bronx* izenekoa kaleratu zuten, orduko hartan Animagic-ekin.

Arévalo anaiek osatutako enberrari beste kide batzuk gehitu zitzaizkion: Arturo Ramírez-Montesinos «Captain bit», David Tolosana «Noisy Man», Carlos del Álamo «Estrayk», Enrique Coiras «Coi», Javier Florencio «Kronos» eta Mateo Pascual «Evelred», besteak beste. Gehienak madrildarrak izan arren, Euskal Herrian ere bazeukaten kiderik: Jon Beltrán de Heredia «Yann».

1973an Irunen jaio zen Beltrán de Heredia, eta gogoratzen duenez Legazpiko euskal *party*aren berri izan omen zuen Iguanako jendeak. «Izanak ginen Espainiako beste *party* batzuetan, FallasParty-an (Valentzia), ButifarraParty-an (Bartzelona) eta Southern Party 93-an (San Fernando), esate baterako, baina antolakuntzako Amiga-zaleak ez genituen ezagutzen. Hara joatea erabaki genuen, hala eta guztiz ere».

Iguanako taldekide guztiak animatu ziren beren lanekin Tolosara joaten, eta ordenagailu bateragarrien arloan menderatu beharreko erreferentzia bihurtu ziren. Sabino San Vicenterekin egin zuten topo

25. Arévalo anaien *Star Dust* 8 bit-eko ZX Spectrum, MSX, eta Amstrad CPC ordenagailuetarako eta 16 bit-eko PCetarako plazaratu zen. Jokoa Erresuma Batuan argitaratu zen, US Gold konpainiaren zigilu merke batean.

han, bai eta euskal eszenako Aitor Garai, Ismael Raya, Álex Camaño edota Unai Landarekin ere, eta urte batzuk geroago Pyro Studios bideo-jokoen garatzailean bat egingo zuten berriro.

Iguanakoen Euskal Party-ko parte-hartzea aldatuz joan zen urtetik urtera, taldekide gehienek bideo-jokoen industriarako jauzia egin baitzuten azkenean. Javier Arévalok Noriaworks Entertainment enpresa sortu zuen 1995ean eta, urtebete geroago, Arvirago Software, Gonzalo Suárez, Diego Soriano eta Jon Beltrán de Herediarekin batera. 1997an, berriz, Pyro Studios-en *Commandos: Behind enemy lines* en aurreproduktzioan parte hartu zuen. High Voltage Software-era (Hoffman Estates, Illinois) joan zenean, Jon Beltrán de Heredia euskaldunak bete zuen Arévalok programazio-buru gisa utzitako ardura.

Eidos banatzaile ingelesak *Commandos: Behind enemy lines* emandako babesak hazten lagundu zion proiektuari. Ignacio Pérez Dolsetek, Gonzo Suárezek eta Jorge Blancok gidatutako taldeak lankide gehiago behar zituen finkatutako epeak bete ahal izateko. Non aurkituko zituzten onenak?

Programatzaileen harrobia

Lehenago esan dugunez, eszenako talde desberdinen artean zegoen lehia handiari esker, sormen bereziko gazteen harrobi handi bat sortu zen. Programatzaile bikainak eta teknologiako aditu erabatekoak ziren gazte haiek. Softwarea garatzen zuten enpresek bazuten mugimendu haren berri, bideo-jokoak garatzen zituztenek bereziki, *scener* haietako batzuk han arituak baitziren lanean. «Euskal Party-a erreferentzia zen Espainian. Beste batzuek egiteko gauza zirena denbora errealean ikusteko aukera ematen zuen», azaltzen du Jon Beltrán de Herediak.

Eta Pyro Studios-ek *Commandos: Behind enemy lines* (Pyro Studios, 1998) garatzeko taldea handitu behar izan zuenean, gure euskalduna *party*ko bere kideez gogoratu zen: Unai Landa, Álex Camaño eta Asier Hernández izan ziren Pyro Studios-en lanean hasi ziren lehenak, eta, handik denbora batera, Ismael Raya, Julio García «Yuio» eta Raúl Ramos gehitu zitzaizkien.

Pyro Studios ez zen izan, ordea, demoeszenaren harrobira jo zuen Espainiako enpresa bakarra. Dinamic Multimedia eta Rebel Act sortu berria ere euskal *party*etan izan ziren 1999-2001 urte bitartean.

Alberto Moreno grafistak gogoratzen duenez, Dinamic Multimedian zebilela, Euskal 7-an (1999) izan zen, eta han hitzaldi bat eman zuen, Alberto Hernández kanpo-proiektuen arduradunarekin eta David Galeano *PC Fútbol*en ekoizlearekin batera, enpresak proiektu berriak argitaratzeko asmoa zeukala aditzera emanaz. Jende bila zebiltzan.

Morenok Euskal Party-an azaldu zuenez, *PC Fútbol* jokoekin urte luzez aritu eta gero, bere bideo-jokoa zuzentzeko aukera eskaini zioten: *Eurotour Cycling*. «Jokoak 3Dko motor bat behar zuen, eszenategi ireki bat simulatzeko, eta hainbat kilometroko errepide bat, 200dik gorako tropel batentzat». 1990eko hamarkada amaieran, motorren programatzaile on bat aurkitzea «ez zen erraza».

«Ederki moldatzen ginen Pyro Studios-eko langileekin, eta ostiral iluntzeetan garagardoak hartzera joaten ginen haiekin. Unai Landak, Julio García eta beste programatzaile batzuek —Álex Camañok eta David Notario «Mac»-ek— esan zidatenez teknologiako programatzaile peto-petoak demoeszenaren barruan mugitzen omen ziren, euskal *party*an bereziki». Izan ere, euskal *party*ak «talentu-harrobi bat izateko ospea» zeukan, «sektorearen etorkizuneko izarrak han aurki zitezkeelakoan», diosku Alberto Morenok.

Eta hala izan zen. *Eurotour Cycling*eko arduradun nagusiak Euskal Party-an fitxatu zuen bere teknologia-programatzaile nagusia. Víctor Mendiluce du izena eta, handik urte batzuetara, *Heart of Stone* eta *Commandos Strike Force* proiektuetako programatzaile nagusia izango zen.

Mercury Steam-eko egungo *senior producerra* eta Rebel Act desagertuko programatzailea ere, José Raluy, Euskal Party-an izan zen. «Banekien Euskal Party-a leku egokia zela, eta oso demoeszena indartsua zeukala. Neroni han izana nintzen urte batzuk lehenago, Ibon Tolosana Deustuko Unibertsitateko nire lankidearekin batera. Bion artean «Toxic & JRG» taldea sortu, eta demo bat aurkeztu genuen han».

Urte batzuk geroago, Raluy Rebel Act-en hasi zen lanean, *Blade: The Edge of Darkness* (Rebel Act, 2001) PCrako jokoko senior programatzaile gisa. «Jende bila zebiltzan, eta orduko garapen-zuzendariari, Xavier Carrillori, esan nion Euskal Party-ra joatea geneukala, jende bila. Antolatzaileekin hitz egin, eta hitzaldi bat eman nuen Euskal 8-an (2000), Luis Miguel Quijada, 2D/3Dko diseinatzailearekin batera».

Carrillok berak zehazten duenez, euskal *partya* «erreferentzia-leku bat zen, zalantzarik gabe, eta programatzaile onak biltzen ziren han, guri interesatzen zitzaigun demoeszenako jendea bereziki. Euskal-era joandako jendea kontratatuzera iritsi ginen, bai», baina zalantza dauka, ea han bertan izan ote zen, hala geroago, bigarren fase batean.

Handik urte batzuetara Digital Legends-eko sortzaile eta zuzendari exekutibo gisa ere, «garai hartatik ezagutzen genituen profesionalak» kontratatu izan ditu Carrillok, Unai Landa eta Jon Beltrán de Heredia, esate baterako.

Euskal eszena, belaunaldi berririk gabe

Euskal Party-aren lehen ediziotik bertatik Amiga-eszenaren mundua izan zen topaketa informatiko haren oinarri eta funtsa. «Bosgarren edizioa egundokoa izan zen, baina baita inflexio-puntu bat ere», azpimarratzen du Sabino San Vicentek. Urte hartatik aurrera (1997), Amiga-demoeszenaren indarrak eta demoen ekoizpenak behera egin zuten Espainiako Estatu osoan.

«Ez dakit zein izan zen benetako arrazoia. Makinak gero eta indartsuagoak ziren, eta muga ez zuen hardwareak jartzen, pertsonak baizik. 3Dko lehen motorrak sortzen hasi ziren. Gero eta denbora eta jende gehiago behar zen Europatik zetozen ekoizpenekin lehiatu ahal izateko. Ilusioa gainbehera hasi zen, eta ez zen belaunaldi-ordezkapenik egon».

